

# HONDARRIBIA

XXXII. Herri Kanta Jaialdia



**2023ko Maiatzaren 21ean**

Goizeko 11:30ean

.....

**GIPUZKOA PLAZAN**



# Herri Kanta XXXII. jaialdia

## XXXII. Festival de Canto Popular

### EGITARUA

ABESBATZA	IZENBURUA	HITZA	MUSIKA	ZUZENDARIA
ZUMARDIKOAK ABESBATZA	XURIAN-XURI	Herrikoia	Ganbara (mold.: Iñigo Salabrria)	Iñigo SALABERRIA
	MENDIRIK MENDI	Herrikoia	Sabin Salaberri	
SURBESTA ABESBATZA	IKUSTEN DUZU GOIZEAN	Jean-Baptiste Elizanburu	Alexandre Lesbordes	Ander RIBES
	HAU BELDURRA!	Surbesta	Kobi Osrhat	
OLAGARRO	HAIZE HEGOIA	T. Monzon Olaso	Philippe Oyhanburu	Xabier AGIRRE
	ARDIAK LERRO LERRO	Manex Pagola	Anje Duhalde	
BILLABAK	NESKA HURA	Ane Lainsa	Billy Joel	Aritz ENPARAN
	ALTXATUKO GERA	Ane Lainsa	Bruce Springsteen	
KLINK KORUA	MAIATZ HONTAN (ce mois de mai)		C. Janequin	Aritz GONZALEZ
	LAU TEILATU	Juan Carlos Perez	Alberto Lasa	
AMUTE-KOSTA	ITZAL ARTETIK	Ander Ribes	S. Smith	Bibi GARCIA
	ZURETZAT	J. Ormabera	C. Martin	
KARDIÑERUAK	MENDIAN GORA HARITZA	Xabier Amuriza	Imanol (mold.: Aritz Enparan)	Aritz ENPARAN
	HERRI KANTA DA	Kardiñeruak	Hall Johnson	
GOXOKI	XALBADORREN HERIOTZEAN	Xabier Lete	Xabier Lete (mold.: Alberto Lasa)	Alberto LASA
	GOIZEKO IZARRA		Jose Juan Santesteban	
XARMANTA	SEHASKA KANTA	Amelia Campandegui	Amelia Campandegui	Pili ANUNCIBAY
	HONDARRIBIKO ARRAIKETARIAK	Lurdes Zubeldia	Lurdes Zubeldia (arm.: Javier Busto)	

Bukaeran abesbatza guztiek batera "Agur Jaunak" kantatuko dute.

## ZUMARDIKOAK ABESBATZA

### XURIAN XURI

Xurian xuri, gorrian gorri,  
zoragarria zera zu.  
Liparr batean in al badaike  
bi erresomaren yabe,  
hoyek guziak deus elirazke,  
maite biotza, zu gabe;  
maite biotza zu gabe.

Zure ikhustera hemen eldu niz,  
nola ziraden maitea.  
Bizitze on bat opa dereitzut  
dohain orotaz bethea  
eta ondoren, hiltzen zelarik,  
Paradisuan sartzea,  
Paradisuan sartzea.

Hitza: **HERRIKOIA**  
Musika: **GANBARA**  
(MOLD.: **IÑIGO SALABERRIA**)  
Zuzendaria: **IÑIGO SALABERRIA**

---

## ZUMARDIKOAK ABESBATZA

### MENDIRIK MENDI

La-ra, la, la, la-ra...  
Mendizaleak aurrera,  
goazen mendi gailurrera,  
gogoz soinak esnatzera,  
tralarala, tralarala.

laufi goazen bidezigorrez  
mendi gora maldetatik.  
Edera da gure herria  
maite dugu bihotzetik  
ez da ludian besterik.  
tralara la, la,...

Goazen mendirik mendi  
baserritik baserrira,  
esanaz askatasuna  
laister dator,  
laister dator gurekin.  
La, ra, la, ra...

Hitza: **HERRIKOIA**  
Musika: **SABIN SALABERRI**  
Zuzendaria: **IÑIGO SALABERRIA**



---

## *SURBESTA ABESBATZA*

### IKUSTEN DUZU GOIZEAN

Ikusten duzu goizean,  
argia hasten denean  
menditto baten gainean.  
Etxe ttipitto, aitzin xuri bat  
lau haizondoren erdian.  
Txakur txuri bat atean,  
iturriño bat aldean.  
Han bizi naiz ni bakean.

Hitza: **JEAN-BAPTISTE ELIZANBURU**

Musika: **ALEXANDRE LESBORDES**

Zuzendaria: **ANDER RIBES**

---

## *SURBESTA ABESBATZA*

### HAU BELDURRA!

Hau beldurra! Bagoaz!  
Hau beldurra aurten ere bai.  
Kalera atera ta  
jende aurrean zernahi kantatzera.  
Zeinek esan digu honetan sartzea?  
Hau beldurra berriro.  
Ay ama, beldurra! Hanka sartzeko!  
Urtero berdin tabladora igotzean.  
Inoiz ez gera ohituko?  
Hau beldurra!  
Baztertuta beldurra  
agertzen da gure sasoi.  
Arnasa sakon hartu  
ta goazen denok Herri Kantara  
erakustera prestatu duguna.  
Ta zerura begira  
eskatzen dugu ondo joatea  
miñon baita aguro pasatzea.  
Azken txanpa falta da.  
Azken builak!  
Azken builak, ta horra!  
Attu in da gure denbora.  
Gaurkoan baita posible den onena  
aurkeztu dugu, beraz, ALELUIA!  
ALELUIA! Guazen ya!  
ALELUIA! Bukatu dela!  
Guain trago bat ederki merezia.  
Pasatu da trantzia! ALELUIA!  
Surbesta txapelduna! ALELUIA!  
Heldu den urte arte!  
ALELUIA!

Hitza: **SURBESTA**  
Musika: **KOBI OSRHAT**  
Zuzendaria: **ANDER RIBES**



---

## *OLAGARRO*

### HAIZE HEGOA

Haize hegoa gau epela  
ilargiaren argi  
mutxurdirak leihoetan  
teilatuan katu bi.  
Bide ertzian zenbait kanta  
gauerdiz arnoari  
Argaineko sorgin zaharra  
keinuka ilargiari

Hitza: **T. MONZON OLASO**  
Musika: **PHILIFE OYHANBURU**  
Zuzendaria: **XABIER AGIRRE**



---

## OLAGARRO

### ARDIAK LERRO LERRO

Ardiak lerro lerro  
mendi maldan doatzi  
Haize firfira batek  
deituz gorago beti  
Ibar zola erreketan  
denak lotan sartzen dira  
Zoin amultsua zautan  
gaua jausten mendira

La la la la la la ...

Egunaz ixil bazen  
gauaz pizten mendia  
Belar punta bakotxak  
nasai dakar bizia  
Gaztain ondota kukuak  
joiten dauku soinua  
Eta izarrekilan  
pestan dugu zerua

La la la la la la ...

Oroituko naiz beti  
Arradoiko bazterrez  
Horrarat so gelditu  
bainaiz maiz bi begiez  
Bainan orain ezin dut  
zangorik hor finkatu  
Bizi bihurri hunek  
Bainau hortik urrundu

La la la la la la ...

Hitza: **MANEX PAGOLA**  
Musika: **ANJE DUHALDE**  
Zuzendaria: **XABIER AGIRRE**

## *BILLABAK*

### NESKA HURA

Neska hura  
Beti bere munduan dago  
Inoiz ez du ez mutilik izan  
Ta amak ez dio ezer esan  
Ni jungo naiz neska harekin  
Nahiz eta ez den nere lekua  
Odol beroz hurbilduko naiz ta  
Seguru berak nahiko duela  
Ziur nago

Jakingo du zer egin  
Egun luzeekin  
Ta esnatzean  
ziur ikusiko du  
Ni ez naizela  
Hain gogorra  
eta gainera  
Maite dudala nik neska hura  
Nahiz eta bere munduan dagon  
Mundu hortaz aspertu egin da  
Opari asko, parranda gutxi  
Ordua da

Neska horrek  
Badaki bai pobrea naizela  
Baino agian ohartuko da  
Zoriona nik daramadala  
Berarentzat  
Kaletikan ikustean  
Hain da ederra  
Ta hizketan aritzean  
Nirea da  
Ez naiz hain gogorra  
Eta gainera  
Asko maite dut nik neska hura  
Nahiz eta bere munduan dagon  
Odol beroz hurbilduko naiz ta  
Seguru berak nahiko duela.

Hitza: ANE LAINSA  
Musika: BILLY JOEL  
Zuzendaria: ARITZ ENPARAN

---

## *BILLABAK*

### ALTXATUKO GERA

Goazen denok batera  
Eman zure eskuen indarra  
Goazen denok batera  
Elkarrekin altxatuko gera

Ezin dut ezer ikusi  
Ezin dut ezer antzeman  
Ilunean mugitzen naiz  
Eskuak kateaturik dauzkat

Bidea aspaldi galdu dut  
Ez dakit nora iritsi naizen  
Pisu gehiegi daramat  
Gailurreraino heldu naiteke?

Goazen denok batera  
Eman zure eskuen indarra  
Goazen denok batera  
Elkarrekin altxatuko gera

Goizean goiz atera naiz  
Kanpai-hotsez beterik dena  
Bidea zaila izango da  
Baino sutan iritsi naiz hona

Goazen denok batera  
Eman zure eskuen indarra  
Goazen denok batera  
Elkarrekin altxatuko gera

Izpirituak inguruan  
Aurpegi zahar, begi beltz bortitzak  
Beren odolak aurkitu nau  
Argi sakratu honen aurrean

Hitza: **ANE LAINSA**  
Musika: **BRUCE SPRINGSTEEN**  
Zuzendaria: **ARITZ ENPARAN**



---

## *KLINK KORUA*

### MAIATZ HONTAN (CE MOIS DE MAI)

Maiatz honetan, maiatz honetan  
Maiatz honetan jantzi berdea,  
Maiatz honetan jantzi berdea,  
Maiatz honetan jantziko dut.  
Goiz goizetik jeikiko naiz,  
Maiatz polit-polit honetan,  
Goiz goizetik jeikiko naiz,  
Salto, jauzi, brinko! kaleetan alai  
Lagunaren bila noa.  
Soinekoarekin jolastuaz,  
Jolastuaz, muxukatuz!  
Maiatz honetan, maiatz honetan  
Maiatz honetan jantzi berdea,  
Maiatz honetan jantzi berdea,  
Maiatz honetan jantziko dut.

Musika: **C. JANEQUIN**  
Zuzendaria: **ARITZ GONZALEZ**

---

## *KLINK KORUA*

### LAU TEILATU

Hemen gaude  
Ta poztutzen naiz  
Ta ziur zure aita ere bai;  
Ta zer ondo... zelan dijua  
Zure bufanda txuria.

Lau Teilatu gainian  
Ilargia erdian eta zu  
Goruntz begira,  
Zure keia eskuetan  
Putzara batekin... putz!  
Neregana etorriko da  
Ta berriz izango gara  
Zoriontsu  
Edozein herriko jaixetan.

Goxo goxo  
Kanta egin nazu  
Benitoren Maria Solt.  
Negarrik ez,  
Txuri zaude ta malkoak  
Zure kolorea kentzen dute.  
Lau teilatu...

Felix, Felix bihar  
Berriz egongo gara  
Txanpain apur batekin;  
Diru gabe baina  
Izarrak gurekin daude,  
Piano baten soinuaz.

Lau Teilatu ...

Hitza: **JUAN CARLOS PEREZ**  
Musika: **ALBERTO LASA**  
Zuzendaria: **ARITZ GONZALEZ**

## AMUTE-KOSTA

### ITZAL ARTETIK

Ilunpetan bizi naiz ni  
mundutik baztertuta  
nere txoko hotz honetan  
esku bero baten zai

Arraroa naizelako  
ta ez berezia  
bakardadea da nere  
ingurune naturala

Horretara azkenean  
ohitu naizenean  
bapatean zu hor zaitut  
zer moduz naizen galdezka

Itzal artetik  
negar malkotan ibili naiz  
baina orain badakit  
eskura zu zaitudala

Itxaropenik ote da?  
neretzat lekua?  
zure galderak piztu du  
nere gau beltzan argi bat

Itzal artetik  
negar malkotan ibili naiz  
baina orain badakit  
eskura zu zaitudala

Urteak bakardadean  
eta orain konturatu naiz  
eman beharreko pausua  
laguntza eskatzea dela

Itzal artetik  
negar malkotan ibili naiz  
baina orain badakit  
eskutik zu zaitudala

Itzal artetik  
negar malkotan ibili naiz  
baina orain badakit  
zure laguntza dudala.

Eskutik zu zaitudala  
Zure laguntza dudala  
(¿boca cerrada?)  
Azkenik esku bero bat!

Hitza: **ANDER RIBES**  
Musika: **S. SMITH**  
Zuzendaria: **BIBI GARCIA**

---

## AMUTE-KOSTA

### ZURETZAT

Gatzuk orain besteak aspadi  
genizun ezagutu zuri  
batzutan triste, bestetan pozik  
bihotz onez...

Lagunen lagun ta borondatez  
auzoko plaza onuraz betez  
igaro zenituen egunak  
eskertzea...

“Ai zenbat kontu  
denak ezin eskertu  
ezin zaitugu ahaztu”

Emakume borrokalaria  
hiru alaba aurrera ateriaz  
adibide on paregabea  
irrifartsu...

“Ai zenbat kontu ...

Denok alai gogoratu  
eman ziguna

Denok alai gogoratu  
argi hura

Denok alai gogoratu  
gure ardura

Denok alai gogoratu  
bizi gaitetzen

“Ai zenbat kontu...

Hitza: **J. ORMABERA**  
Musika: **C. MARTIN**  
Zuzendaria: **BIBI GARCIA**

## KARDIÑERUAK

### MENDIAN GORA HARITZA

Mendian gora haritza  
auntzak haitzean dabilta  
itsasoaren arimak dakar  
ur gainean bitsa.  
Kantatu nahi dut bizitza  
usteltzen ez bazait hitza  
mundua dantzan jarriko nuke  
Jainkoa banintza.

Euskal Herriko tristura  
soineko beltzen joskura  
txori negartiz bete da eta  
umorez hustu da.  
Emaidazue freskura  
ura eskutik eskura  
izarren salda urdina edanda  
bizi naiz gustora.

Euskal Herriko poeta  
kanposantuko tronpeta  
hil kanpaiari tiraka eta  
hutsari topeka.  
Argitu ezak kopeta  
penak euretzat gordeta  
goizero sortuz bizitza ere  
hortze zegok eta.

Hitza: **XABIER AMURIZA**  
Musika: **IMANOL**  
MOLD.: **ARITZ ENPARAN**  
Zuzendaria: **ARITZ ENPARAN**



## KARDIÑERUAK

### HERRI KANTA DA

Adi denok Hondarbiyan  
Bihotzak gotti Hondarbiyan  
Herri Kanta da!

Soziedadian  
gosari ederra  
ta gero kantatzera  
Herri Kanta da!

Umore ona, Hondarbiyan  
Giro ederra, gure herriyan  
Kantatzia ta ondo pasatzia  
maitatzen dugulako,  
Goza dezagun, goza dezagun  
Herri Kanta da!

Gaur juntatu gera zueken aurrean,  
Juntatu gera zueken aurrean,  
Herri Kanta da!

Ongi pasatuzeko, zuekin batera  
Ederki pasatzeko, zuekin batera  
Barrenak hustutzeko, zuekin batera  
Herri Kanta da!

Umore ona, Hondarbiyan  
Giro ederra, gure herriyan  
Kantatzia ta ondo pasatzia  
maitatzen dugulako,  
Goza dezagun, goza dezagun  
Herri Kanta da!  
Gaba ailegatzia kin batera  
Ederki mozkortuko gera  
Herri Kanta da!

Eta nota onenak, lehertu artian  
dantza onenak, lehertu artian  
Lehertu artian,  
Herri kanta da!

Umore ona, Hondarbiyan  
Giro ederra, gure herriyan  
Abestea maitatzen dugu eta,  
Goza dezagun, goza dezagun  
Herri kanta da!

Ta bihar jai hartu gabe, ai gizajua,  
Jai ez duena, ai kottadua,  
gogoratu gure ojua:  
Goza dezagun, goza dezagun  
Herri Kanta da!

Hitza: **KARDIÑERUAK**  
Musika: **HALL JOHNSON**  
Zuzendaria: **ARITZ ENPARAN**



---

## GOXOKI

### XALBADORREN HERIOTZEAN

Adiskide bat bazen  
orotan bihotz-bera  
poesiaren hegoek  
sentimentuzko bertsoek  
antzaldatzen zutena.

Plazetako kantari  
bakardadez josia  
hitzen lihoa iruten  
bere barnean irauten  
oinazez ikasia

Nun hago, zer larretan  
Urepeleko artzaina,  
mendi-hegaletan gora  
oroitzapen den gerora  
ihesetan joan hintzana...

Hesia urraturik  
libratu huen kanta,  
lotura guztietatik  
gorputzaren mugetatik  
aske sentitu nahirik...

Azken hatsa huela  
bertsorik sakonena,  
inoiz esan ezin diren  
estalitako egien  
oihurik bortitzena...

Nun hago, zer larretan  
Urepeleko artzaina,  
mendi-hegaletan gora  
oroitzapen den gerora  
ihesetan joan hintzana...

Hitza: **XABIER LETE**  
Musika: **XABIER LETE**  
MOLD.: **ALBERTO LASA**  
Zuzendaria: **ALBERTO LASA**

---

## *GOXOKI*

### **GOIZEKO IZARRA**

Goizeko izarra guztiz argia  
mantxarrik gabe ikusten do

Baina maitia, zure onduan  
bai garbiagoa da

Agur maitia, neure eguzkia  
Agur, agur betiko agur.

Musika: **JOSE JUAN SANTESTEBAN**  
Zuzendaria: **ALBERTO LASA**



---

## XARMANTA

### SEHASKA KANTA

Nere neska polita, etxeko aingerutxo  
Haserre zaude nahi duzu egin lo  
lasai maitea nik lagunduko,  
sehaska-kantakin kulunka egingo.

A lolo nere ttikia, gozoro abestuko  
mainarik ez amonan bihotza, mesedez egintzu lo,  
a lolo edertasuna, a lolo goxo-goxo.

Kilin kulun honekin, nere muxu gorri,  
begi ederra hoiek itxitzen hasi  
aski da mattia ez negar egin,  
zure malkoak miñ egiten dit.

A lolo nere ttikia, gozoro abestuko  
mainarik ez amonan bihotza, mesedez egintzu lo,  
a lolo edertasuna, a lolo, goxo, goxo.

A lolo, lo-o

Hitza: **AMELIA CAMPANDEGUI**  
Musika: **AMELIA CAMPANDEGUI**  
Zuzendaria: **PILI ANUNCIBAY**

---

## XARMANTA

### HONDARRIBIKO ARRAIKETARIAK

Albako izarra itzali da  
egun berria sortu da  
umeak lo  
t'han dijoa  
arraia saltzera Frantzira

Jaskia buruan,  
alpargatak gerrian  
itsasbehera t'ankutzikan  
eztarri betez ojukan

Kraba, dontzella ta faneka, fresku fres-  
kua!  
Xaxi, txitxarro ta berdela bertakua!

Battelan ekarria  
ur berexikua  
amoz harrapatua  
Hondarrabikua

“Madama pur le vu  
arrai freskua hemen duzu  
ni pur le vu ta ez pur le mua  
atoz ia, atoz ia  
biek konponduko gera,  
Madama atoz ia”

Hamabiak jo ttin Prudentxi  
Maria gotti dun goazemin  
gure ibai Bidasoan  
paregabea munduan.

Biazan, biazan bere txoko ta inguruan  
dama fina ta polita  
zeru puskaz jantzia  
gure Hondarbia

Hitza: LURDES ZUBELDIA  
Musika: LURDES ZUBELDIA  
ARM: JAVIER BUSTO  
Zuzendaria: PILI ANUNCIBAY



## AGUR JAUNAK

Agur Jaunak  
Jaunak agur,  
agur t'ardi  
Danak Jainkoak  
eiñak gire  
zuek eta  
bai gu ere.  
Agur Jaunak,  
agur,  
agur t'ardi,  
hemen gera,  
Agur Jaunak.





1 - Bai,  
2 - Ez,

re lu - rrak la - ia - tuz e - tai - rau - liz  
nok eus - ka - ra ba - kar bat nahi du - gu  
za nahi du - gu  
t nahi du - gu



Hondarribiko  
Udala

e - ta ja - kin  
he - rri ba - koi -